

duela da. Boto portzentaian, %27tik %17ra pasa da. EAE mailan EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak (227.973). Alderdi abertzaleak oso gertu izan du PSOE (225.278), eta urrunago geratu da EAJ (194.594).

Herrialdeka, Nafarroan PSOEek (74.861) garaipena erdie-tsi du PPren aurrean (72.856), UPNko bozkatzaileak PPra modu orokortuan joan ez diren seinale. Orain Errepublikak hirugarren (48.762). Voxek 17.238 boto lortu ditu, Sumar (10.017) eta Podemosen (8.394) baturak ematen duena baino mila boz gutxiago. EAJren CEUS 8.230 bototan geratu da.

Arabaren ere PSOE gailendu da (36.280), bigarren postuan geratu den Orain Errepublikak koalizioari alde handia aterata (26.933). PPK (22.201) EAJ gailendu du (19.122).

Bizkaia dagokionez, PSOEek (122.087) aurre hartu dio CEUSi (117.784), eta bien ez da oso urrun geratu Orain Errepublikak (104.845).

Gipuzkoan EH Bildu (96.133) alde handiz izan da garai-le, bigarren PSOE geratu da (66.717), eta EAJ hirugarren (57.626).

Hiriburuei dagokionez, Iruñean PPK (%30,74) lau puntu-ko alde atera dio PSOEri (%26,24), herrialdean gailentze-ko balio izan ez badio ere. Hirugarrena Orain Errepublikak izan da (%18,74), eta laugarren Vox, oso urrunetik (%5,80).

Hego Euskal Herriko gainontzeko hiriburuetan PSOE izan da nagusi.

Gasteizen, PSOEek (%30,92) 11 puntu atera dizkio PPri. Eta popularrekin ia berdinduta geratu da EH Bildu, EAJ laugarren postuan sei puntura utzita.

Bilbon ere PSOE nagusi (%27,68), kasu honetan EAJren gainetik (%23,15). Orain Errepublikak hirugarren postua lortu du (%16,58), eta PP oso gertu geratu zaio (%15,62).

Donostian azkenik, PSOEek (%27,48) lau puntu atera dizkio EH Bilduri (%23,84). EAJ izan da hirugarren (%17,78), eta hurbil geratu zaio PP (%15,13).

## PARTE-HARTZEA

Parte-hartzeak gutxiatik gainditu du boto eskubidea duten herritarren erdia: Lapurdin abstentzioa %46,50ekoa izan da; Nafarroa Beherean %45,00; Zuberoan %46,39; Nafarroa Garaian %47,23; Araban %50,14; Bizkaian %48,31; eta Gipuzkoan %49,90. ●



## EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com

